

Izadi-zori, izadi eder,
oa beti zoragarri!
Aspaldi zuri zor nizun sari
gaur gogo dizut ekarri
—eta bizia maite dut,
nik nai ez iltzerik—,
gaur gogo dizut ekarri.

Beude millaka loreak dindil,
nik laztanaren zirtzilo.
Oro nai nuke nere barnean
artu neretzat atxílo
—eta bizia maite dut,
nik nai ez iltzerik—,
artu neretzat atxilo.

Goizantz emakor, suspergarria,
ezkon-andrea emanik,
ekartzin, otoi, aurretan aunitz,
ni bizi-miñez aserik
—eta bizia maite dut,
nik nai ez iltzerik—,
ni bizi-miñez aserik.

NEKAZARIEN ZAINDARIA

Ixidor deunaren eguna; urtero ospatzen dugu, or beeko komentuko elizan. Guk ere badugu fedea, eta eskerrak eman bearra: ainbat doai ta mesede artzen ditugu Jainko onaren eskutikoak. Iñoiz ere ez dugu eskertzarreko izan bear.

Doiñu: «Erreguetan ari nintzala...».

(**Boga, boga**, 70 orr.) .

Nekazariok besteak beste
badugu geure zaindari;
ona zergatik egun nagoen
biotz-dardar ta pozkari:
gaur izan dudán zorion-berri
opa nioke kantari
iragar gogoz, alaitu dedín,
nere talde guztiari.

Orain zertan ta fede gaietan
naspilla dabil itzala...
Gure gauz asko antziñakoak,
gauez egiñak bezela,
zakur-ametsak ornén ditugu,
Baldin badugu orrela,
dena ote da gure asabak
ondutako ipuin utsala?

Ez, ezta olan! Abere gera,
baiña abere errazoidun.
Norbaitek eman dit adimena,
ta gauzak ditut ezagun;
norbaitek jarri dit barrenean
gora-miña garrasidun:
neregan ez dut ilkorra oró,
barruak dasat (1) ots-dundun.

Ortik, iñolaz ere, neri etzait
ez min, ez begi nekea,
goiz urratzean, arrats apalez,
zeruan ikuskatzea,
ez bildurrez, bai begiramenez
dizdiz utsetan aseá,
gure Sortzaille. gure Babesle,
jainko onaren aintzea.

Kl) Esaten dit.

Poz-orditua egin bearrez
ibil nakizu goizean.
Poz-iturria, nik alan uste,
guk daramagu barnean,
eta bertantxe dugun kezkazko
utsarte larriz betean
nork digu berriz emango guri
bear genduken aiñean?

Goizez bai tuntur (2) Ixidor deuna
ospatu dugu elizan:
abere sari, barru lillura,
txistu, danbolin soiñutan.
Nekazariok jaiez jantzita
Zaindariatetan jaietan
zelaian zear Irudi deunaz
meza nagusi ostetan.

Orren ondoren tuntun soiñua
ta dantza bizkor ugari...
Aspaldi danik nintzakiola
zorrez Ixidor onari,
zor ori diot gaur goizaldean
alai ordaindu berari;
ezbearretik sorosi bait nau,
txalo Isidor deunari!

Ez dut ixil nai: baserrian ez,
ezta dena izpi zuria,
lan eta kantu, kezkarik gabe,
lillurazko Arkadia...
Kezka, arazo ta naigabeak
ez dute paper urria;
gora begira alarik ere
poza zait dutan bizia.

(2) Gailiur.

Otoitz eta lan egiña dugu
Ixidor deuna gogotik,
aitzur ta golde artean zuen
jartzen eskari ederrik;
zeru-lurre tan ondo zekusan
Jainko lorratza nasairik;
lur au santutu leikela errez
ez eizu izan ezpairik.

Ezker-eskubi dugu ederra
nai aiña Jaunak ereiña:
lore ta zugaitz, txori abesti,
izar t'eguzki tartaiña (3)...
Guzti au bekit neroni ere
—zeru-lur sari ariña-
izerdiz lortu bearra dudan
ogiaren atsegiña.

Pozarren diot: gaur elizan naiz
izan Ixidor goosten;
ala ere nik ementxe daukat
izadi zabala lerden:
berton ari naiz, lan bitartean,
salmu ta eresiz kirmen
zor dizkiodan aintza ta ospe
Jaunari gogoz ematen.

(3) Buru iritxi.